

Basque Tek Ventures

EKIMENAREN OINARRIAK

2026ko deialdia



DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, INNOVACIÓN
Y MEDIO AMBIENTE

Hobetzeko tarte dagoen arren, ZTBESko agenteek hobekuntza eraginkorra izan dute azkeneko urteetan ekoizpen-ehunari egiten dion ekarpenari dagokionez.

Teknologia altuan (*deep tech*) oinarritutako proiektu berriek inpaktu handiagoa eta eraldaketa produktibo hobia sortzen dute zenbait alderditan: lana eta fakturazioa sortzea, nazioartekotzea eta inbertsioa eta finantzaketa erakartzea.

Nolanahi ere, proiektu horiek zailtasun handiagoak dakartzate zehaztu, jaurti eta egonkortzen direnean, eta arrisku handia ekar dezaketenez, zailtasunak daude finantzaketa lortzeko eta talentua erakartzeko.

Momentu honetan esan dezakegu Basque Tek Venture (aurrerantzean, “**ekimena**”, “**Basque Tek Venture**” edo “**BTV**”) ekimenaren laugarren deialdiari heltzeko “puzzleko pieza guztiak” ditugula, eta ildo horretan esperientzia duten agenteen laguntza dugula.

Ekimen berriaren helburua da Euskadin OTEBak sortzeko prozesuan esku hartzen duten faktore kritiko nagusiei modu positiboan eragitea, **I+G eta ekintzailetzako ekosistemaren agenteek azken urteetan egin duten lana osatzeko eta indartzeko**. Horrenbestez, Basque Tek Ventures ekimenaren helburua da enpresako proiektu berriei laguntzea indar handiko aktibo teknologikoak identifikatuz eta lehenetsiz. Horretarako, errendimendu altuko taldeak prestatzeko eta OTEBak abian jartzeko eta merkatura iristeko laguntza ematen da.

Basque Tek Venture SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak (aurrerantzean, “**SPRI**”) koordinatutako ekimena da, eta hauen lankidetzari esker garatu da: Basque Research & Technology Alliance (aurrerantzean, “**BRTA**”), GESTIÓN DE CAPITAL RIESGO DEL PAÍS VASCO, SGEIC, SA (aurrerantzean, “**GCR**”) eta Euskadiko BICen sarea, hau da, BIC GIPUZKOA BERRILAN SA (aurrerantzean, “**BIC GIPUZKOA**”), Arabako Eraberrikuntza Industrialdea AB - Centro de Empresas e Innovación de Alava SA (aurrerantzean, “**BIC ARABA**”) eta BEAZ SA (aurrerantzean, “**BEAZ**”). Hemendik aurrera, “**BICak**” erabiliko dugu BIC GIPUZKOA, BIC ARABA eta BEAZ batera aipatzeko.

2.- XEDEA

Ekimen honen xedea da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen barneko aukera teknologikoak identifikatzeko prozesua abian jartzea, BTVren irizpideetara hobekien egokitzen diren aukerak hautatzeko, eta, horien bidez, oinarri teknologikoko enpresa berriak abian jartzea ekarriko duten balorazio-prozesuak martxan jartzea.

3.- TERMINOAK ETA DEFINIZIOAK

- **BTV (Basque Tek Ventures):** aktibo teknologikoen oinarri teknologikoko enpresa berriak identifikatzeko eta nabarmentzeko lan egiten duen Eusko Jaurlaritzako Venture publikoa da.
- **Aukera teknologikoa:** know-how, patente eta abar gisa merkatuko potentzial globala duen erakunde baten parte den ikertzaile-talde batek garatzen duen edo garatzen laguntzen duen teknologia.
- **Erakunde eskatzailea:** teknologia garatu edo garatzen lagundu duen erakundea, aukera teknologikoaren jabetzaren eskubide eksklusiboak dituen.
- **Balorazioa:** aukera teknologikoa teknologiaren eta merkatuaren ikuspuntutik aztertzekeo prozesua. Amaitzeko, balorazioa-txostena egiten da.
- **Startup:** BTVk egindako prozesu guztiaren ondorioz sortzen den eta oinarri teknologikoa duen enpresa berria.
- **IP (Intellectual Property):** jabetza intelektuala.
- **Pre-seed fasea:** oinarri teknologikoko proiektu baten fasea, non oraindik inbertsio pribaturako erakargarria ez den.
- **Seed fasea:** oinarri teknologikoko proiektu baten fasea, non inbertsio pribaturako erakargarria izaten hasten den.
- **ZTBES:** Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-erakunde multzo batek osatzen du, eta, sarean lan eginez, I+G+b orekatuko jarduera-nahasketa garatzen du. Horretarako, Euskadin aberastasuna eta ongizatea sortzen laguntzen duen ikerketa espezializatu eta bikaina egiten dute.
- **OTEB:** Oinarri Teknologikoko Enpresa Berriek (OTEB) produktu edo zerbitzu berriak sortzen dituzte aurrerapen zientifiko edo teknologikoen aplikazioan oinarrituta.
- **CTO (Chief Technology Officer):** egikaritzearen ikuspuntutik, informazio-sistemak garatzen dituen eta behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzen duen arduradun teknikoa da. Oro har, ingeniari-taldearen eta amaierako produktua hobetzeko estrategia teknikoa ezartzen duen arduraduna da.

4. - ERAKUNDE ESKATZAILEAK

Ekimena Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile hauei zuzenduta dago:

- Zentro teknologiko multifokalizatuak
- Zentro teknologiko sektorialak
- Ikerketa kooperatiborako zentroak (CIC)
- Unibertsitateetako ikerketa-egiturak
- Oinarrizko ikerketako eta bikaintasuneko zentroak (BERC)

Ez da zehaztu erakunde bakoitzak egin dezakeen eskabide-kopurua, eta egokitzen jotzen diren guztiak egin daitezke, betiere oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

5.- AUKERA TEKNOLOGIKOETARAKO ESKATZEN DIREN OINARRIZKO BALDINTZAK

Hautaketa-prozesuan sartzeko aukera teknologikoei eskatzen zaizkien oinarrizko baldintzak hauek dira:

- Jabetza-intelektual (IP) propioa, enpresa berrira transferitu daitekeena.
- Teknologiaren heldutasun-maila: garatu eta balioztatu den teknologia izatea.
- Proiektuaren ahalmen globala.
- Erakunde eskatzailearen eta ikertzaile-taldearen inplikazioa.

Deialdi honetan eskabideak aurkezteko beharrezko baldintzak ez diren arren, lehentasuna izango dute hauek dituztenak:

- Erregistratutako patentea.
- Ekintzailetza-taldea.
- Ikertzaile-taldearen inplikazio-maila altua.
- Ingurune errealean baliozkotze-fasean dagoen teknologia garatzea.
- Proiektuaren *roadmap*aren lehen bertsioa.

6.- ERAKUNDE ESKATZAILEAK BERE GAIN HARTUTAKO KONPROMISOAK

Ekimen honetan eskabideak aurkezten dituen erakundeak konpromiso hauek hartu beharko ditu bere gain:

- **Aukeraren liderra:**
 - Erakunde eskatzaileek aukera teknologikoaren liderra izango den pertsona bat izendatu beharko dute, eta hura izango da BTVrekin harremanetan jartzeko pertsona ofiziala. Pertsona horrek erakunde eskatzailearen izenean lan egiteko baldintza legalak bete beharko ditu, eta deialdian adierazitako zehaztapen eta baldintzak betetzen direla sinatuko du.
- **Ez-transferitzeko konpromisoa:**
 - Ekimenean parte hartzeko eskabidea aurkezten denetik, eskabidearen helburu den aukera teknologikoa transferitzeko kudeaketarik egingo ez delako konpromisoa hartzea. Negoziazioaren bat abian egonez gero, eskabidean adierazi beharko da eta prozesua geldiarazi egingo du balorazio-prozesuaren emaitza ezagutu arte. Emaitzak ez baditu ekimenaren baldintzak betetzen, erakunde eskatzailearen konpromisoa deuseztatu egingo da.
 - Positiboa bada, erakundearen konpromisoa indarrean mantenduko da.
- **Teknologiaren balorazioa** (aukera teknologikoa):
 - Pre-seed fasea: proiektuak hautatzeko gai izango dira milioi bat euro inguruko balorazioa defendatu dezaketenean, **eta honako hau izango da teknologiari ematen zaion gehieneko**

balorazioa: **1 milioi euro (pre-money)**. Amaierako balioa teknologia merkaturatzeko beharrezko inbertsioaren arabera zehaztuko da (*roadmap*ean definituko den 1. mugarria).

- Seed fasea: salbuespen gisa, erreferentziatzeko inbertitzaile pribatu batek onartutako balorazioa onartuko da, gutxienez BTVk inbertitutako kantitate bera ematen badu. Ildo horretan, BTV funtsaren partaidetzak ezin izango du % 10etik beherakoa izan.

- **Transferentzia-/lizentzia-akordioa:**

Erakunde eskatzaileek transferentzia-akordioa negoziatzeko konpromisoa hartzen dute startup-ak sortzeko hurrengo premisak kontuan hartuta:

- Etorkizuneko startupak garatuko duen teknologiaren transferentzia-/lizentzia eskusiboa izatea. Izaera horizontaleko aukera teknologikoa denean, eskusibotasun hori bertikal zehatz batean aplikatzeko erabili ahal izango da. Startup berriaren etorkizuneko bideragarritasuna lehenetsiko da.
- Erakundeak teknologia garatzeko, instalazioak erabiltzeko eta abar egiteko konpromisoa hartzen du jasotako *equity*aren truke. Hori guztia transferentzia-/lizentzia-akordioan negoziatu eta kuantifikatuko da.
- CTOa startupean hasiko da lanean, edo, bestela, teknologia garatu duen ikertzaile-taldeak gutxienez urtebetez egingo du lan startupa aztertzen eta abian jartzen (*equity*aren truke).
- *Royalties*: fakturazioaren % 1 eta 5 artean, aukera teknologikoa merkaturatzeko egin beharreko inbertsioaren arabera.

- **Inbertsio-akordioa:**

Inbertsio-akordioan aintzat hartuko dira BTVk, erakunde eskatzaileak eta talde sustatzaileak proiektua garatzeko behar dituzten zehaztapen eta baldintzak. Akzioen konfigurazioa kasuaren arabera negoziatuko den arren, BTVk talentua eta kapitala erakartzeko proiektuak eratzeak premisa du, eta talde ekintzaileari protagonismoa emango dio eta akzioen konfigurazioa koherentea dela bermatuko du.

Erakunde eskatzaileek inbertsio-akordioa negoziatzeko konpromisoa hartzen dute hurrengo premisak kontuan hartuta:

- Orientazio gisa, akzioen tarte hauek zehazten dira:
 - o Erakunde eskatzailea: <% 50
 - o BTV: <% 40, amaierako ekarpenaren arabera.
 - o Talde sustatzailea (ikertzaile eta ekintzailea): parte-hartze nabarmena ezarritako mugarrien lorpen-mailaren arabera.
 - o Beste batzuk (inbertitzaileak, etab.): beren ekarpenaren arabera, bai maila kualitatibo zein kuantitatiboan
- BTVk, *venture building* prozesuan zehar, honako hau erabakitzeak aukera izango du:
 - Egikaritu beharreko gastu/inbertsioaren tipologia.
 - Egikaritu beharreko gastu/inbertsioaren zenbatekoa.
 - Kontratatu beharreko hornitzailea.
 - Startupak diruzaintzako irteerak egitea dakarren beste edozein elementu.

- Zorrak / bermeak...

7.- BTV EKIMENAREN FASEAK

Ekimenak honako fase hauek izango ditu:

- **0. fasea: aukera teknologikoen deialdia.** Erakunde eskatzaileek Basque Tek Ventures esparruan lantzea proposatzen duten aktibo teknologikoak ezaugarritzeko memoria egin behar dute. Memoria horrek 4 kapitulu izango ditu, eta hura osatuko duten atalek zuzenean lotuta egon behar dute ebaluazio irizpideekin. Horrela, erantzunek horietako bakoitzera hobekien egokitzen den metrika esleitzea ahalbidetuko dute.
- **1. fasea: aukera teknologikoen lehen hautaketa.** Hasierako fasean, deialdian aurkeztutako aukera teknologikoen artean, honako hauek aukeratuko dira:
 - o Lehenik eta behin, ekimenaren oinarrietara egokitzen direnak hautatuko dira.
 - o Bigarrenik, balorazio-fasera igaroko diren 30 aukera teknologiko hautatuko dira gehienez. Hautaketa hori BTVk egingo du eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik 15 eguneko epean. Horretarako, ekimenari egokitzen ote zaion eta aktiboen ahala zein den baloratuko da.
- **2. fasea: aukera teknologikoak balioztatzea.** Fase honetan balorizazioa egingo da hurrengo irizpideetan oinarrituta:
 1. IRIZPIDE ESTRATEGIKOA
 2. PERTSONEN ETA GAITASUNEN IRIZPIDEA
 3. IRIZPIDE TEKNOLOGIKOA
 4. BALIO-PROPOSAMENAREN IRIZPIDEA
 5. MERKATUKO IRIZPIDEA
 6. IRIZPIDE EKONOMIKO - FINANTZARIOA

2. fase honen ondorio gisa, aukera teknologikoaren balioespenaren txostena egingo da, eta bertan puntuazioa eta gomendioak jasoko dira, bai eta merkatura iristeko kontzeptuaren hasierako *roadmapa* ere.

Gehienez ere **15 aukera teknologiko** aukeratuko dira hurrengo fasera igarotzeko, balorizazio-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera.
- **3. fasea: startupa abian jartzeko oinarrizko elementuak definitzea.**

Aurreko fasean onetsitako aukera teknologiko bakoitzaren azterketa egingo da.

BTVk eta ikertzaile-taldeak hurrengo alderdiak landu, definitu eta itxiko dituzte:

- **Proiektuaren *roadmapa*:** proiektuak inbertsio pribaturako erakargarria izan dezakeen balioaren mugarrak definituko da, eta hura lortzeko ekintzak, kostuak, langile propioak, erakundearen langile eta azpiegiturak eta elkarlanak zehaztuko dira, bai eta zenbatetsitako epeak ere. Gainera, proiektuaren epe ertain-luzeko ikuspegi estrategikoa definituko da orainaldiko eta etorkizuneko garapenak orientatu ahal izateko.
 - **Transferentzia-/lizentzia-akordioa:** akordioaren baldintzak negoziatu eta erabakiko dira, eta 6. atalean zehaztutako konpromisoak onartuko dira. Horrez gain, BTVk eta erakundeak garrantzitsutzat jotzen dituen beste elementuak argituko dituzte.
 - **Inbertsio-akordioa:** akordioaren baldintzak negoziatu eta erabakiko dira, eta 6. atalean zehaztutako konpromisoak onartuko dira. Horrez gain, BTVk eta erakundeak garrantzitsutzat jotzen dituen beste elementuak argituko dituzte.
 - **Proiektu-taldea:** startupa abian jarri ahal izateko, BTVren laguntzaz gain, gutxieneko proiektu-taldea beharko da proiektu horretako *roadmapa* zehaztutako jarduerak egikaritzen direla bermatzeko.
 - **Beste alderdi zehatz batzuk:** proiektu batzuek startupak abian jartzerakoan funtsezkoak izan daitezkeen baldintza zehatzak izan ditzakete (jabetza intelektual, alderdi arautzaileak, beharrezko lankidetzak), eta, kasu horretan, aintzat hartuko dira.
- **4. fasea: startupa eratzea eta martxan jartzea.**

3. fasean zehaztutako elementu guztiak izan ostean, startup berria eratzeke eta martxan jartzeko moduan egongo da.

Une horretatik aurrera, BTVk honako hauek egingo ditu:

- Inbertsio-akordioan finkatutako ekarpenak.
 - Proiektuaren tutorizazioa, jarraipena eta mentorizazioa, eta, horretarako, esperientzia egiaztatutako pertsonak jarriko ditu.
- **5. fasea: talentu ekintzailea bilatzea eta gehitzea.**

Talentu ekintzailea funtsezkoa da proiektu guztien arrakastarako. Horren bilaketa konplexua da. BTVk talentua bilatzeko berriazko prozesu bat egitea planteatzen du, 3. eta 4. faseko aukera teknologiko bakoitzerako.

Aukera teknologikoari edo martxan dagoen startupari buruzko dosierra diseinatuko da, garatzeko baliabideak dituen eta martxan dagoen proiektu batera talentua erakartzeko.

8.- EKARPEN EKONOMIKOAK ETA TIPOLOGIA

Startup bakoitzari egin beharreko ekarpen ekonomikoaren zenbatekoa 3. fasean zehaztuko da, eta BTVk (GCR) ezarritako gehieneko zenbatekoa 250.000 € da.

Ekarpen horiek tarteka egingo dira inbertsio-akordioan zehaztutako jarduera eta helburu zehatzen arabera.

BTVk egin beharreko ekarpen mota erabakiko du. Honako hauetako bat izan ahalko da:

- *Equity*.
- Partaidetza-mailegu bihurgarria, BTVk erabakitzen duenean.

BTVk ekarpenak geldiarazi ahalko ditu proiektuaren arrakastari buruzko arrazoizko zalantzak daudenean.

Baldintza horiek guztiak sinatutako inbertsio-akordioan zehaztuko dira.

9.- BTV EKIMENEAN PARTE HARTZEN DUTEN PROIEKTUENTZAKO ONURAK

Eskabidea aurkezten duen erakundeak lortzen dituen onura nagusiak honako hauek dira:

- 2. fasean (aukera teknologikoa balioztatzea) honako hau lortuko du:
 - BTVk egindako balorizazio-txostena. Txosten horretan alderdi teknologikoak eta merkatukoak aurreikusten dira, baita gomendioak ere.
 - 2. fase hau gainditzen ez duten proiektuetarako, BTVk aholkularitza emango du fasea gainditzeko egin beharreko ekintzei buruz.
 - Finantzatzea, hala badagokio, balio erantsiko zerbitzuak.
- 3., 4. eta 5. faseetan honako hauek lortuko dira:
 - Aukera teknologikoa balioztatzea.
 - Startup proiektua baieztatzea (aukera/talentu ekintzailea).
 - Talentu ekintzailea bilatzea.
 - *Roadmap* zehaztua eta ezarritako balio-mugarriak garatzeko baliabide ekonomikoak dituen startupa martxan jartzea.
 - 250.000 € arteko ekarpen ekonomikoa startupa garatzeko.
 - BTVren aholkularitza espezializatua, BICen laguntzarekin, startupen garapen-fase guztietarako.
 - Merkaturako sarbidea.
 - Sarbidea BTVren ekosistemara; honako hauek dira onurak:
 - Ikusgarritasun handiagoa talentu ekintzailea erakartzeko.
 - Proiektua balioztatzea, beste finantzari batzuei eskuragarritasun handiagoa emateko.
 - Lotura merkatuarekin.
 - Lotura beste ekintzailetza-ekosistema batzuekin.
 - Gardentasun eta etikarik handiena.

- Prestakuntza.
- Sarbidea ekintzailtzari buruzko ekitaldi eta hitzaldi inspiratzaileetara.

10.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA.

Eskabideen erregistroa [webgune](#) honen bidez egin beharko da.

Eskabideak aurkezteko epea 2025/02/04an hasiko da, 14:00etan, eta 2025/03/20an amaituko da, 17:00etan.

Eskabide osoa aurkeztu ostean, jaso dela baieztatzeko mezu elektronikoa bidaliko da.

11.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO ETA EBALUATZEKO PROZEDURA.

Eskabideak aurkeztea

Eskabideak aurkezteko beharrezkoa izango da:

- Webgunean dagoen eskabide-galdetegia betetzea.
- Aukera teknologikoaren memoria eranstea, eskuragarri dagoen txantiloari jarraikiz.
- Erakundea oinarri hauetan ezarritako baldintzekin eta konpromisoekin ados dagoela adierazten duen agiria aurkeztea.

Eskabideen ebaluazioa

BTVk egingo du eskabideen ebaluazioa, honako irizpide hauen arabera:

1. IRIZPIDE ESTRATEGIKOA
2. PERTSONEN ETA GAITASUNEN IRIZPIDEA
3. IRIZPIDE TEKNOLOGIKOA
4. BALIO PROPOSAMENAREN IRIZPIDEA
5. MERKATUKO IRIZPIDEA
6. IRIZPIDE EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Fase honen amaieran aukera teknologikoaren balorizazio-txostena lortuko da, dagozkion puntuazioarekin eta gomendioekin, baita merkatura heltzeko kontzeptuzko hasierako *roadmap* bat ere.

Jakinarazpenak

Aukera teknologikoak ebaluatu ostean, emaitzak webgunean argitaratuko dira.

Erakunde bakoitzak eskabidean emandako harremanetarako helbide elektronikoan jasoko ditu BTVren jakinarazpen guztiak.

Erakunde eskatzaileak balorizazio-txostena jasotzeko eskubidea izango du.

12.- ERAKUNDE ESKATZAILEAK KONPROMISOAK EZ BETETZEA

2., 3. eta 4. faseetan saio ugari egingo dira. Fase horietan giza baliabide asko mugiaraziko dira (hala nola mentoreak, aholkulariak, industriako adituak, enpresari arrakastatsuak, exekutibo korporatiboak, inbertsio-taldeak, etab.); hala, beren denbora erabiliko dute ezagutza aditua partekatu eta proiektuak bultzatzeko. Hori horrela, partaideei eskatuko zaie saioak ahal beste aprobetxatzeko.

Ikusten bada partaideren bat oinarri hauetan hartutako konpromisoak hausten ari dela, eta, beraz, proiektuaren bilakaera oztopatzen ari dela, BTVko zuzendaritzak eskubidea gordetzen du egoera hori berrezartzeko beharrezko neurriak hartzeko, partaideak kaleratzeko aukera barne.

Erakundeak eskabidean hartutako konpromisoak ez betetzeak ekimenetik kanporatzea eragin dezake, eta SPRIk legezko ekintzak hartzea, baldin eta erakundeari kalteak eragiten bazaizkio.

13.- EDUKIA

Erakunde eskatzaileek ziurtatzen dute programara borondatez aurkeztutako edukiek (laburpenak eta aurkezpenak barne) ez dituztela hausten hirugarrenetik eskubideak, edo, hala badagokio, ekimen honetan parte hartzeko beharrezko baimenak dituztela. Horrez gain, egiaztatu behar du ez direla iraingarriak edo laidogarriak; ez dutela indarkeria edo arrazakeria sustatzen; ez dituztela aplikatu beharreko araudiak aitortutako oinarritzko eskubideak eta askatasun publikoak hausten, ez eta haurren eta gazteen babesari buruzkoak ere; ez direla sartzen pertsona fisikoen intimitate pertsonalean edo familiarrean; ez dutela hausten hirugarrenen ohorerako eskubidea edo komunikazioen sekretua edo ez direla indarreko araudiaren aurkakoak. Era berean, aurkeztutako proiektuek hizkeraren eta irudien tratamenduaren erabilera ez sexista bermatuko dute.

14.- KONFIDENTZIALITASUNA

«Informazio konfidentzial» terminoak honako hauek barne hartzen ditu, horietara mugatu gabe: informazioa; dokumentazioa; datuak; prozedurak; diseinuak; ezagutzak; jakinarazpenak eta txostenak; estrategiak; negozio-planak; proiektuak; eragiketa- eta negozio-proposamenak; politikak; arauak; lerrokadurak; azterlanak: estatistikak; grafikoak; diagramak; formulak; ikurrak; marrazkiak; planak; finantza-egoerak; saldo orokorrak; balantzeak; finantza- eta ekonomia-analisiak; know-how-a; softwarea; edozein informazio tekniko, legal, ekonomiko, finantzario, kontable eta komertzial, bai eta korporazio- eta/edo enplegu-informazioa ere; edozein motatako datuak formatu elektroniko guztietan;

informazio pribatua; markak; patenteak; izen komertzialak; industria-sekretuak; mapak; obrak; laburpenak; bildumak; konpilazioak; txostenak eta BTV ekimenaren deialdira aurkeztutako eskaeren artean egile-eskubideen eta jabetza industrialaren bidez babestuta dagoen informazio oro.

BTV ekimeneko partaideek emandako informazioaren konfidentzialtasuna bermatuko da, honako informazio honen kasuan izan ezik: proiektuei eta ekipoei buruzko informazio orokorra, teknologia mota, sektorea eta proiektuaren laburpen motz bati buruzko informazioa (informazio ez-konfidentziala badauka, jendaurrean jartzeko, edozein unetan eta edozein hedabideren bidez). Halaber, ekimeneko partaideek konpromisoa hartzen dute BTV ekimena garatzen den bitartean sortutako informazioaren eta ezagutzen konfidentzialtasuna bermatzeko.

BTVk eta ekimenean parte hartzen duten erakundeek legezko ekintzak martxan jartzeko eskubidea gordetzen dute beren interesak defendatzeko, baldin eta BTV ekimeneko partaideren batek konfidentzialtasuna hausten badu.

BTVk eta ekimenean parte hartzen duten erakundeek bermatzen dute ekimen honen esparruan emandako informazio konfidentziala modu hertsiki konfidentzian tratatuko dutela; hala, ekimenaren xedeetarako erabiliko dute eta beharrezko segurtasun-neurriak hartuko dituzte eskaeren ebaluazioa behar bezalako konfidentzialtasunez egiteko.

Honako datu hauek ez dira informazio konfidentzialtzat hartuko: (a) jabari publikoko datuak edo jabari publikokoak izan ahal direnak; (b) besteren batek informazio konfidentziala erabili gabe sortu, eman, garatu edo lor ditzakeen datuak; (c) aldean arteko konfidentzialtasun-betebeharraren menpe ez dauden eta hirugarren batek jasotako datuak; eta (d) legeak hala agintzen duelako edo mandatu judizial baten ondorioz jakinarazi behar diren datuak.

BTVk eta ekimenean parte hartzen duten erakundeek ekimen honen esparruan jakinarazitako informazio konfidentziala erabili nahi badute, berariazko baimena eskatu beharko diote idatziz erabili nahi den informazioaren titularra den ekimeneko partaideari.

15.- DATU PERTSONALEN BABESA (DBLO)

Datuak babesteko aplikagarria den araudian ezarritakoa betez, jakinarazten dizugu emandako datuak SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIAK tratatuko dituela (zuzenbide pribatuko erakunde publikoa; egoitza: Bilbo (Bizkaia), Urkijo Zumarkalea, 36-4; IFK: Q-4800789-B), bere ardurapean eta tratamenduaren arduradun gisa, hori guztia ekimen honetarako egindako eskabidea kudeatzeko eta BTV ekimena gauzatzeko oinarri juridikoa aintzat hartuta (DBLOren 6.1.b) artikulua).

Datu horiek legez ezarritako epeetan gordeko dira eta honako hauei jakinarazi ahalko zaizkie: (i) horietarako sarbidea izan behar duten eta dagokion ekimenaren esparruan tratamenduaren eragile gisa jarduten duten enpresa lankideak, (ii) arloan eskumena duten administrazio publikoak, tratamenduaren arduradunak bete behar dituen legezko betebeharren arabera.

Jasota geratzen da datu horien aurkezpena nahitaezkoa dela; beraz, ez aurkezteak edo datu okerrak aurkezteak ekimenean parte hartzeko eskabidea kudeatzea eragotziko du.

Interesdunek sarbide, zuzenketa, ezabatze, oposaketa eta datuen babeserako araudiak ematen dituen gainerako eskubideak baliatu ahalko dituzte, honako helbide honetara idatziz: lopdp@spri.eus. Era berean, SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIAren datuen babeserako ordezkariarekin harremanetan jarri ahal dira, dpd@spri.eus helbide elektronikoaren bidez, edo Eusko Jaurlaritzako datuen babeserako ordezkariarekin, [esteka honetan](#) deskribatzen den moduan.

Nolanahi ere, interesdunek erreklamazioa aurkeztu ahalko dute Datuen Babeserako Euskal Agentzian, bereziki eskubideak baliatu ostean ez badira pozik geratu. Hona hemen Agintaritzaren webgunea, harekin harremanetan jartzeko: www.avpd.eus/hasiera/.

SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIAk interesdunen eskura datu pertsonalen babesari buruzko informazio gehigarria eta xehatua utzi du www.spri.eus webguneko Pribatutasun Politikan.

16.- IRUDI-ESKUBIDEAK, LOGOAK ETA MARKAK

Ekimen honetan parte hartzeak honako hau dakar: erakunde eskatzaileek baimena ematea berariaz BTVri eta ekimenean parte hartzen duten erakundeei beren izena eta irudia doan erreproduzitzeko, erabiltzeko eta zabaltzeko, publiko orokorrarekin partekatzeko xedearekin, horretatik inolako ordainsaririk jaso gabe. Lagapen horrek ez dauka muga geografikorik edo tenporalik, eta izaera publikoa dauka.

Erakunde partaideek konpromisoa hatzen dute logotipoak, markak eta material grafikoa BTVri lagatzeko, soilik ekimena sustatzeko xedearekin erabil ditzan, beharrezkotzat jotzen dituen komunikazio-kanalen bidez, betiere aurretiaz edozein baliabideren bidez erakundeko arduradunari jakinarazi eta hark hori onartu ostean.

17.- ERREKLAMAZIOAK

Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 39.2 artikuluan xedatutakoa betetz, SPRIk zuzenbide pribatua erabiliko du jarduera hori garatzeko (horrek ez dakar administrazio-ahalak baliatzea) eta jarduera horretatik eratorritako hirugarrenetikiko harremanetarako. Gaitasun juridikzionala auzitegi eta epaitegi zibilei dagokie. Partaideek aplikagarria den beste edozein eskumeni uko egiten diote, eta ekimenaren interpretazioarekin edo exekuzioarekin zuzenean edo zeharka lotutako edozein eztabaida, desadostasun, zalantza edo erreklamazio ebazteko eskumena Bilboko auzitegien eta epaitegien menpe geratuko da berariaz.